

Kultura kontzeptua ez da unibertsala, mendebaldean sortu zen, baino horrek ez du esan nahi, noski, kulturarik gabeko herririk dagoenik, baizik eta kulturaren kontzeptua bera baldintza jakin batzuetan sortu zela.

Kultura kontzeptuaren genealogia:

-Hizkuntza frantsesean Erdi Arotik XIX. mende arte:

XVIII. mendean sortu zen kultura hitza gaur egun duen esannahiarekin, baino 1700erako "kultura" maiz erabiltzen zen hitza zen, landua zegoen lur partzela bat izendatzeko, bere latinezko jatorrizko esanahiari lotuta (latinez kulturak abere edo soroen/belazeen zaintza esan nahi du). XVI hasieran, "estado" bat izendatetik akzio bat izendatzera pasa zen, lurra kultibatzearen akzioa. XVI. erdialdera, kulturaren zentzu figuratua sortzen da, fakultate baten lanketa izendatzeko erabiltzen hasten da, baino XVII. mende bukaera arte ez da oso ohikoa. XVIII. mendean hasten da ezartzen "kultura" bere zentzu figuratuan. Hala ere, beste kontzeptuei lotua agertu ohi da: "artearen kultura" "zientziaren kultura". Denborarekin, kultura bere kabuz erabiltzen hasten da, buruaren formazio eta hezkuntza izendatzeko. XVIII. bukaeran kultura hitzak berriro ere "estado" baten esanhia hartzen du: "estado de la mente", kultura dun norbanakoa. Argien mendean, egoera hau, kultura izatearena, naturala izateari kontrajartzen zaio, kultura vs natura dikotomiaren baitan. Kultura gizakiak historian zehar metatutako jakituria bezala ulertzen da. Logika horren baitan, kultura singularrean erabiltzen da, unibertsalismo eta humanismoari jarraiki, kultura Gizonari dagokion zerbait gisa ikusten baita. Kultura ilustrazioaren ideia guztiei lotua agertzen zaigu: progrespa, arrazoaia, eboluzioa, hezkuntza. Izan ere, garai horretan gizakiaren aurrerapen positibo baten ideia zegoen, hezkuntzaren bidez gero eta kultura gehiago lortuko zuen eta gero eta hobeagoa izango zen gizakiaren ideia. Kultura "zibilizazio" kontzeptuari lotua agertzen da, XVIII mendean arrakasta handia duen kontzeptua, baino kultura progreso indibidualarekin lotzen da, eta zibilizazioa, progreso kolektiboarekin. Kultura bezala, zibilizazioa era unitarioan erabiltzen da. Bere esanahi originala ohituren refinamentua da, baina laister gizakia irrazionalitate eta ezjakintasunetik ateratzeko prozesuarekin lotzen da. Burgesia erreformistak zibilizazioa arrazoaia eta jakintzan oinarrituako gobernu motak justifikatzeko erabiltzen dute.

Zibilizazioa instituzio, lege, hezkuntza etabarren hobekuntzarekin lotzen da, babestu eta aurrera eraman behar den proiektu batekin. Gainera, gizatea sortzen duten herri guztiei zabaldu behar zaie. Herri batzuk, noski, besteak baino zibilizatuago gisa ikusten dira, eta aurreratuenek atzeratuenei lagun behar diete (basatiei).

"Kultura eta zibilizazio" hitzak, s.XVIII mendean, historiaren kontzepzio desakralizatu bat markatzen dute, historiaren filosofia teologiatik askatu da, antropozentrismaori erantzuten diote, nahiz batzuk kutsu erlijiosoa hartu progresoaren ideia honi.

-Kulturaren inguruko eztabaida franko-alemana, edo "kultura-zibilizazio" antitesia (s.XIX-XX hasiera).

Kultur hitza s.XVII mendean agertzen da Alemanian zentzu figuratuan, frantsesean zuen esanahi berberaz, frantsesaren eta ilustrazioaren eraginez (klase altuek garai hartan alemanian frantsesa itzein). Kultur hitzaren eboluzioa, hala ere, ez da frantsesean bezala eman. Zergatik? Alemanian burgesiaren eta aristokraziaren arteko harremana etzen estua, Frantziaren bezala, izan ere, burgesiaren akzio politikorako gaitasuna nahiko mugatua zegoen. Burgesia intelektualak "kultur" hitza aristokraziaren aurka erabiltzen du. Zientzia,

arte, filosofia eta erlijioan oinarritutako balore espiritualak aristokraziaren balore "kortesei" kontrajartzen zaizkie. Burgesiaren arabera, aristokraziaren baloreak ez dira autentikoak, superfizialak baizik. Burgesia intelektualak, zein nagusiki unibertsitateketan zetozen, Alemania gobernatzen zuten printzipeei arteagatik kezkatzen ez zirela aurpegiatzen zieten, eta Frantziako eredu "zibilizatua" imitatzen mugatzen zirela, gorteko zeremonialetan, adibidez, baino ez zirela artea ta literaturagatik kezkatzen. Bi balore sistemen arteko oposizio hau egiteko kultura eta zibilizazio hitzetan baliatuko dira. Kultura autentikoa denetik sortzen den eta aberastasun intelektualari laguntzen dion edozer da, zibilizazioa berriz, brillantea ematen duen baino azalekoa eta hutsala dena. Horrela kultura zibilizazioari kontrajarria da, sakona azalekoari kontrajartzen zaion bezala. Burges aleman intelektualentzako, gortea, nahiz zibilizatua izan, ez zeukan kulturarik; eta herriari gauza bera gertatzen zaionez, burgesia horrek helburu bat markatzen du: kultura alemana garatzea eta "sacar a relucir".

Alemanian, kultura-zibilizazioa oposizioa maila sozialetik nazionalera pasatzen da gutxinaka: Alde batetik, aristokrazia alemanaren izaera zibilizatua frantziarekin lotuko da, eta hau alienante gisa definituko da. Aldi berean, hizkuntza alemanaren eta alemana denaren goratze eta haren garatu-nahi bat plazaratuko dute (abangoardia intelektualak alemana bakarrik erabili). Burgesia honek gero eta gehiago bilatuko du batasun kultural bat.

Burgesiaren goraldiak klase bezala aldaketak ekarriko ditu: Frantziar iraultza baino lehen, "zibilizazio" terminoak bere konotazio aristokratiko alemanak eta gehiago lotzen da Frantziarekin, eta orokorrean, mendebaldeko potentzietekin. Era berean, "kultura", s.XVIIIko burgesia aleman intelektualaren marka bereizgarria, s.XIX mendean nazio alemanaren elementu bereizgarri bilakatuko da. Horrela, burgesiak bere buruari egotzitako ezaugarriak, kulturaren ezaugarriak (sinzeritatea, sakontasuna, espiritualitatea..) espezifikoki aleman bezala ikusten hasiko dira. Izan ere, alemanen "kultur"-aren ideia sozialki azpiratua zegoen klase bat sortu zuen, bere botere kuotak handitu nahi zituen, eta horretarako bestelako legitimazio formak bilatzen zituenak. Inguruko estatuen boterearen aurrean (inglaterra, frantzia..) , eta batasun politikoa oraindik lortua ez zuela, bertako kultura glorifikatzeko hautua hartzen da nazioa bera legitimatzeko. XIX. mendetik aurrera, gero eta joera handiagoa da "Kultur"-aren nozioa alemanen delimitazioa eta bereizgarri nazionalak finkatzeko erabiltzeko. Kulturaren nozioa partikularista da, ez frantsesaren "zibilizazioarekin" lotutako kulturaren ulerkera unibertsalista bezala.

Ya 1774an, nahiz eta era aislatu batean, Herderrek herri bakoitzak "genio nazional" bat zeukala teorizatzen zuen (volksgeist), eta herri bakoitzari bere aitormena zoi zitzaiola, eta herri bakoitzak, bere kultura propioaren bidez, patu partikular bat zeukala betetzeko, kultura bakoitzak bere eran espresatzen zuela gizatasunaren zati bat. Kultur aniztasunaren alde agertzen zen, eta ilustrazioaren unibertsalismo uniformatzailearen aurka, uste baitzuen que era empobrecedor. Herder, zentzu honetan, kulturareb nozio erlatibistaren aurrekari gisa hartu dezakegu.

1806ko napoeonen okupazioa eta gero, kultura alemanaren ulerkera partikularista areagotzen da, eta "izaera alemana" zahazteko esfortzuak handitzen dira. Yada ez da kultura alemanaren singularitateaz bakarrik hitz egiten, baizek eta haren superioritateaz. XIX. mendean gero eta gehiago lotzen da kultura nazioarekin: kultura herriaren arimatik, herriaren geniotik, dator. Nazio kulturala nazio politikoa baino lehenago dago, eta hura galdekatzen du (precede). Kultura nazio baten ondarea da (ondare artistiko, moral eta intelektual), nazioaren batasunaren oinarrian dagoena, eta behin betiko lortzen dena. Era gero eta markatuagoan, autore erromantiko alemanek kultura, nazioaren arimaren espresio

sakona, zibilazioari kontrajartzen diote, zeina garapen ekonomiko eta teknikoarekin lotuta dagoen aurrerapen materialarekin lotzen den. Kulturaren ulerklara partikularista eta esentzialista hau oso ondo bateratzen da momentu horretan Alemanian garatzen ari zen nazioaren kontzepzio etniko-arrazialarekin (jatorri bera duten norbanakoaren komunitatea), zeinek estatu nazioaren konstituzioaren sorrerarako funtsean egongo den.

Frantzian, oso ezberdina izango da hitzaren garaoena XIX. mendean. Alemanen eraginez, kulturak dimentsio kolektibo bat hartuko du, eta jada ez da norbanakoaren garapen intelektualarekin soilik lotuko. Kultura talde baten ezaugarriei estaeko erabiltzen hasten da, baino aksotan era lauso batean. "Kultura farntsea", "kultura alemana" edo "gizadiaren kultura" bezalako espresioak erabiltzen dira, eta "zibilizazio" hitzaren antza handia hartzen du, batzutan hitz intercambiables. Baina kultura, adiera frantsesean, gizadiaren batasunaren ideiak markatua geratzen da. Pentsamendu unibertsalistaren jarraikortasun bat dago XVIII-XIXan. Kultura, zentzu kolektiboan ulertuta ere, guzadiaren kultura da, eta eragin alemana egonda ere, batasunaren ideia mantentzen da aniztasunaren kontzentziaren gainean. Kultura alemana/frantsesa etabarren arteko ezberdinatsunen gainetik giza kultura dago, kultura ezberdinen arteko aldeak minimizatzen dira. Intelektualek ez dute batez ere nazionala den kultura baten adiera onartzen, ta aldi berean alemanen kultura vs zibilizazio oposizioa ukatzen dute. Beraien nazioaren kontzepzioa aukeramenean oinarritzen da, frantsesa da frantses izatea aukeratzen duena.

Beranduago, I MG egondako frantses ta alemanen arteko oposizioarekin, kulturaren kontzepzioaren arteko debatea sakondu egingo da (exacerbar)

"El debate franco-alemán de los siglos XVIII-XX es auequetípico de las dos concepciones de la cultura, una particularista, otra universalista, ambas en el fundamento de las dos maneras de definir el conceptu de cultura en ciencias sociales contemporáneas".